

OSOKO BILKURA

HERNANIKO UDALAK 2025EKO ABENDUAREN 16AN EGINDAKO OSOKO BILKURA BEREZIAREN AKTA

ALKATEA:

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra

ALKATEORDEAK:

*Patxi Ibarguren Etxeberria
Ainara Atorrasagasti Urizar
Aitor Lukas Solano*

ZINEGOTZIAK:

*Axier Mingo Arruabarrena
Amaia Miñer Canflanca
Aitor Huizi Izagirre
Urko Lazkoz Fernandes
Oier Agirresarobe Lizaso
Kistiñe Rodríguez Polaina
Andoni Amonarraiz Gómez
Blanca Alberro Aranzasti
Miryam Vázquez Vecino
Mikel Gurutzeaga Zubillaga
Ismael Ganchequi Gonzalez
Ricardo Crespo Rubio
Maria Jesus Ruiz Ochoa
Jaione Aristregi Cao
Lurdes López Gorrotxategi*

IDAZKARIA:

Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa

KONTU-HARTZAILEA:

Aitor Sarasola Salaberria

2025eko abenduaren 16an osoko bilkura egin da udaletxean, arratsaldeko 18:00etan, aurrez deialdia egin zegoelarik. Bileran Xabier Lertxundi Asteasuinzarra alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako zinegotziak eta neu, Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa idazkaria.

Gai zerrenda:

1. DEKRETUEN BERRI EMATEA 2025DEKR2822 DEKRETUTIK 2025DEKR2955 DEKRETURA.
2. (HE) HS.03. EREMUAN PLAN BEREZIA. BEHIN BETIKO ONARPENA
3. HERNANIKO UDALEKO ZARATA-MAPA EGUNERATZEA
4. HERNANIKO KLIMA ETA ENERGIA PLAN INTEGRATUAREN (HKEPI) ONARPENA
5. UDALEKO ORDAINSARIEN IGOERA

1. DEKRETUEN BERRI EMATEA 2025DEKR2822 DEKRETUTIK 2025DEKR2955 DEKRETURA.
Alkatea: Arratsalde on, seiak oraintxe dira puntuan eta urteko azken plenoari emango diogu hasiera, ez-ohiko deialdian egiten ari garen pleno honi.

Ez-ohiko deialdia da, normalean hileko azken astearteetan egiten dugu eta lehenago egin dugunez, ez du denborarik eman azken plenoaren aktaren transkripzioa egiteko, azkenekoa ere ez-ohikoa izan zelako. Hortaz, oraingoan ez daukagu aktarik onartzeko. Hurrengo urtarrileko ohiko plenoan ekarriko genuke akta. Baina badaukagu aurreko plenotik hona eman ditugun dekretuen zerrenda. Hauek denak zuen eskura daude. 2.822 dekretu zenbakitik 2.955era. Ez dakit dekreturen baten inguruan galderarik, zalantzarik edo zerbait badagoen... Ez? Aurrera egingo dugu orduan.

2. (HE) HS.03. EREMUAN PLAN BEREZIA. BEHIN BETIKO ONARPENA

Alkatea: Bigarren puntua HS03 eremuaren plan bereziari behin-betiko onarpena ematea da eta Ainarak azalduko digu gaia.

Ainara Atorrasagasti: Kaixo, arratsalde on.

Dokumentu honen helburua Elizatxo auzoko eremu baterako plan berezia behin-betiko onartzea da. HS03 moduan ezagutzen dugun eremua. Plan honek zehazten duena da eremu honetan zer eta nola nahi den eraiki. Berez, Udaletik kontrastatu da Hernaniko hirigintza arauekin bat egiten duela eta horretarako, berez, ingurumenari, urari, zaritari, trenbideari eta ondareari buruzko hainbat azterketa-txosten egin dira. Eta denek aldeko balorazioa eman dute.

Plana jendaurrean ipini da eta herritarrek edo edonork alegazioak egiteko aukera eduki dute. Hiru alegazio jaso ziren eta horietako baten ondorioz, eremuaren muga pixka bat aldatu da. Eta honekin azken dokumentu bat egin da, lursailaren neurriak zehaztuz; eraikin baten ekipamendu pribatuaren kokapena aldatu da lekuz; ingurumenarekin, urarekin eta trenarekin lotutako baldintzak gehitu egin dira; eta adituek egindako azterketa guztiak txertatu dira. Adibidez, indusketak eta horrelako adituen txostenak.

Berez, oinarrizko proiektua ez da aldatu eta egin dena da hau guztia zehaztu eta txertatu. Orduan, gaur hona dakarkiguna da behin-betiko onarpena ematea.

Alkatea: Eskerrik asko, Ainara. Erronda irekiko dugu. Pentsatzen dut izango direla erronda erabiltzeko asmoak. Txikitik handira egingo dugu.

Jaione Aristregi: Kaixo, arratsalde on eta ongi etorriak. Azken bolada honetan jende asko etortzen da plenora eta pozten gaitu horrek.

Gure taldeak dagoeneko batzordean garapen berri honen aurka bozkatu zuen. Hernanin, batez ere herrigunean, berdeguneak behar ditugu, ondoren jorratuko dugun klima planak adierazten digun bezala.

Hernani Gipuzkoako batez bestekoaren 3 puntu azpitik dago hiriko berdeguneetan biztanle bakoitzeko. Hori da garapenarekin ados ez egoteko arrazoietakoa bat. Bestalde, gure etxebizitza-politikak, beti esan dugun bezala, etxebizitza publikoa eta alokairukoa baino ez du aurreikusten. %100 ezin bada izan, gutxienez etxebizitza kopuru handia egotea erregimen horretan. Eta gobernu-talde honek ohituta gauzkan bezala, HS03n ere ez dugu horrelako etxebizitzarik izango.

Ez dezagun ahaztu ekonomia kaudimendunetarako etxebizitza eskusiboaren garapen honekin bota egingo dela herriguneko azken baserrietako bat, estilo arrazionalistako etxea eta gerra karlistaren aztarnak gordetzen dituen. Bide batez, ondoren etorriko den beste etxebizitza-garapen hauetako batek beste kale-baserri bat ere sunsituko du: Buskando.

Beraz, aurka bozkatuko dugu.

Ricardo Crespo: Arratsalde on, guztioi.

Guk beste momentu batzuetan esan dugun bezala, inguru horren garapenaren alde gaude. Hala bozkatu dugu askotan, baina gobernu-taldearekin adostu dugunez, espero dugu garapen hori ingurunean modu integratua egitea, askoz ingurune berdeagoan, eta, horretarako, nolabaiteko prozesu parte-hartzailea egitea adostu dugu. Ez dakit hitzak ondo erabili ditudan. Otsailetik aurrera horrekin hasiko gara eta une horretara arte itxarongo dugu.

Baina alde bozkatuko dugu, beste une batzuetan egin dugun bezala.

Mikel Gurutzeaga: Arratsalde on.

Guk berretsi egiten dugu Udalak eta teknikariek egin dituzten pausoak orain arte indarrean dauden Arau Subsidiarioaren arabera. Gure ustez garapen hau Hernanirentzat ona da. 52 familia hernaniarrek izango dute aukera etxe berri bat izateko. Edozein kasutan, beti esan dugu inpaktua ahal den txikiena izatea eremu honetan, zaintzeko gune hain berezi hau. Eta neurri batean guk uste dugu lortu dela, adibidez, Atzietako goiko aldeko eraikinari solairu bat gutxiago ematearekin.

Aranzadik ere egin du bere arkeologia txostena eta hor agian baita ere aipatzen dira hainbat ondorio edo neurri zuzentzaileak. Horiek bete beharko dira baita ere.

Orduan, gure bozka ere aldekoa izango da.

Alkatea: Lehenengo erronda behintzat ixteko EH Bildu udal taldetik, Ainara. Gero egingo duguna da ordezkari politikoen erronda bukatutakoan herritarrei emango dizuegu hitza, nahiko bazenute.

Ainara Atorrasagasti: Jaione, nik kontra bozkatzea zilegi ikusten dut, baina zuk jarrita zauden lekutik eta beste ardura bat daukazun horretatik, nik uste dut koherentzia eta ardura politikoa behar direla baita ere. Batez ere, eremu honetako eztabaidak egon direlako, lanketak egon direlako udal organoetan, ez da lehen aldia hau datorrena, ez da gauza berri bat, aspaldi lantzen ari garen gai bat da... eta izan ere, beste aukera eduki duzuenean, aldeko bozkak izan dituzuenean. Hitzarmen bat egon da martxoan eta alde bozkatu duzue, eremu honen hasierako onarpenaren alde bozkatu zenuten maiatzean... orduan, nik uste dut ondo, zilegi da kontra bozkatzea, baina kontra bozkatzen duzuenean proposamenak egon behar dira. Eta proposamen horiek errealistak, bideragarriak eta arduratsuak izan behar dute. Errealistak, bideragarriak eta arduratsuak, berriro diot.

Orduan, niri hemen pasatzen zaidana da ez dakidala zer ari zareten irudikatzen. Lanketak egiten direnean ez duzue ezer aipatzen eta alde bozkatzen duzue, baina gero publikoa daukazuenean, orduan kontra bozkatzen duzue. Hori da zalantza pizten didana.

Alkatea: Ez dakit bigarren erronda erabiliko den...

Jaione Aristregi: Bai, guk behin baino gehiagotan bozkatu dugu igogailuarena, ikusten dugulako hori badela beharra. Gero, esan dezagun, lehen zegoen eraikuntzaren egitura eta orain eraikitzeko egitura aldatu egin dela; orduan, iritziz aldatzeko eskubidea dugu. Eta behin baino gehiagotan azaldu dugu gure politika alokairu eskuragarriko etxebizitza dela, eta ez salmenta librekoa eta ekonomia eksklusiboetarako.

Alkatea: Ez dakit beste udal taldeek baduzuen ezer... Erronda politikoa ixteko, Ainara.

Ainara Atorrasagasti: Aipatzen duzu etxebizitza politika honen alde zaudetela, baina justu etxebizitza politika honen alde egin duzue. Gune tentsionatuaren inguruko ekintza planean garapen hau dago, gainera oso zehaztapen handia duena eta lehentasunez ipinita dago erantzun bat emateko etxebizitza larrialdiari. Jarduketa programaren hasierako onarpenari ere aldeko botoa eman zenioten eta jarduketa horretan lehentasunez ipintzen da lanketa hau. Orduan, uste dut diskurtsoaz harago, benetan mahai gainean ez duzuela alternatiba bat jartzen. Eta ez da izango, gainera, ez ditugulako mahai gainean lan esparruak ipini eta lan egiteko aukerak eman; hori egiten baitugu eta egon baikara horretan. Eta egon garen horretan guztian behintzat nik ez dut jaso zuen aldetik proposamen bat ere, ez esparru honetarako, eta esango nuke, eseri garen guztietan ez dudala jaso Elkarrekin-Podemosetik proposamen bakar bat ere. Benetan diot eta saiatu naiz, egin dut ariketa. Benetan beste talde politikoeekin ez beste, besteekin lanketan egon garen guztietan, ados egon ala ez, eta normalean desadostasunak izaten ditugu, baina beti da proiektua aberasten duen zerbait. Igogailuaren kasuan aipatzen duzu "eremu berdea"... Nik ginkgoaz harago honi buruz ez dut ezer gehiago entzun eremu berde honi buruz, edo berde deitzen diozuen honi buruz. Eta, noski, babestuko da, eremu berde bat izango da eta, gainera, eremu publiko bat sortuko da; orain pribatua den eremua.

Horretaz harago, nik inoiz ere zuen aldetik ez dut ezer jaso. Eta benetan diotsuet aukerak egon direla. Eta etxebizitza gaiarekin jarraituz, gainera, alokairu publikoa aipatzen duzue. Oso ondo dakizue eta askotan landu dugu, gu Eusko Jaurlaritzarekin ari gara lanean Hernanin alokairu publikoan etxebizitzak jartzea lortzeko. Floridan saiatuko gara lursail bat eskaintzen hau lortzeko eta dakizuen moduan, txiki gelditzen denez, hemengo eremua, gure eremu hau ere eskaini dugu berme gehiago emateko. Orduan, bandejan jarri dugu hau alokairu sozialean egiteko, eta honen kontra ari zarete bozkatzen. Ez dut ulertzen. Esaten duzue gauza bat, baina gero kontra bozkatzen duzue. Eta bandejan dago hemen alokairu sozialak lortzeko aukera. Eta zuek kontra bozkatzen duzue...

Benetan zein da zuen proposamena etxebizitzaren gaian? Baina proposamen bat benetan alternatiba errealista, bideragarri eta arduratsu bat e, ez dakit, nik oraindik etxebizitzaren gaian zuen alternatiba magiko horren zain nago.

Alkatea: Normalean ez dugu hirugarren erronda bat irekitzen. Beharrezkoa ikusten baldin baduzue irekiko dugu eta honekin bai, erronda politikoa itxiko dugu bizilagunek hitza edukitzeko.

Jaione Aristregi: Batzordean eta izan ditugun hainbat batzordetan, gure politika beti izan da alokairuko etxebizitza publikoa defendatzea. Badakit oso konplikatua dela. Oso zaila da, Udalak ez duelako eskumena. Baina horregatik borrokatu behar du.

2019az geroztik, Hernanin 0 sustapen egin dira ia, alokairukoak. Ia 0 izan dira, hiru bakarrik, adinekoentzat eta mugikortasun murriztua dutenentzat. Politika egitean hobetu daitekeela uste dugu, eta hori teknikariek landu behar da. Baina hemendik aurrerako sustapen guztiak pribatuak eta salmenta librekoak direla ikusten baduzu, lanerako tarte gutxi egongo da.

Ainara Atorrasagasti: Dituzuen hitzekin badirudi esaten ari zarela garapen hau guztiz librea izango dela eta hemen garapen honetan libreak egongo dira, baina tasatuak egongo dira eta eraikin oso bat Babes Ofizialekoak izango dira. Orduan ez dakit, nahastea nahi den edo ez, baina tira, garapen honetan bai libreak egongo dira, noski, baina baita tasatuak eta Babes Ofizialekoak ere. Eta, gainera, mahai gainean jarri dugu Babes Ofizialeko horiek alokairu sozialekoak izatea.

Alkatea: Nik argitzeko gauza bat eta herritarrei hitza emateko: ezin dugu jendea desinformatu. Zure hitzetatik gaur ulertu dena da hemendik aurrera Hernanin eraikiko diren etxebizitza guztiak libreak direla, eta hori gezurra da. Esaten denean Florida 08, 300dik gora etxe, denak babes publikokoak dira. Hori da Gipuzkoako Foru Aldundia Bilduk gobernatzan zuen garaian eta hemen ere Bildu zegoen garaian egindako hitzarmen baten ondorio. Libreak baziren batzuk eta apustua egin zen denak publikoak izateko. Eta, Ainarak esan duen bezala, badakizue Eusko Jaurlaritzarekin, Visesarekin eta datozen asteetan Etxebizitza Sailburuarekin bilerak dauzkagula. Eta hori ez duzue kontatu. Eta gaur plenoan ausartu zara esatera hori, jakinda ez dela horrela, datozen promozio guztiak libreak direla. Eta hori ez da horrela. Eta HS03koa da adibide bat. Eta datozen guztietan, estandarrak betetzen dira, eta udal honek aukera duenean egiten du apustu alokairu sozialerako. Izan Visesaren bitartez edo izan eskuratzen dituen etxebizitza horiek guztiak alokairu sozialean jarritz. Kontatu zenbat etxebizitza dituen Hernaniko Udalak alokairuan jarrita. Eta egin daiteke konparaketa bat alderatuz beste herriekin. Orduan, kontuz, ez dezagun desinformatu. Ados edo ez, eta zilegi da desadostasunak egotea. Baina uste dut hemen eserita gaudenok, alde honetan edo bankadan, guztiok ardura bat badaukagula. Eta desadostasunak, noski adierazi behar direla. Baina ezin duguna da desinformatu. Ardura publiko bat badaukagulako.

Pentsatzen dut bizilagunen ordezkariaren batek hitza hartu nahi duela. Mikrofonotik, mesedez, aktan gorde eta itzultzaileak bere lana egin ahal izan dezan. Izen-abizenak eta zenen ordezkarietan zatozen, mesedez.

Idurre Alfonso (Kaxko-Elizatxo-Atzieta bizilagun taldearen izenean): Informe arkeologikoaren inguruan esan dugu ostegunean egindako batzarrera arte txosten horretaz ez dugula berririk izan eta ez genekien eginda zegoen edo ez. Inork inongo momentutan ez digu baimenik eskatu lursail pribatueta sartzeko, eremua ondo aztertu ahal izateko. Gure sorpresa izan da txosten arkeologikoa eginda dagoela eta plan berezia onartu nahi dela. Ez dugu ulertzen nolatan txosten arkeologikoa bat eginda egon daitekeen eremu guztia ondo aztertu gabe. Kontutan izanda, gertutik aztertu ez diren lursailak garrantzitsuenak direla. Etxebizitza blokeak doazelako. Eremu garrantzitsu honetako argazkiak urrutitik aterata daude eta bertan dauden osagarri eta hornez, gertutik ikusi gabe hitz egiten da.

Plan berezia onartu baino lehen, promotoreak erositako lursail batean makinaria sartu eta horietako horma bat hautsi zuen. Txosten arkeologikoa oraindik egin gabe zegoenean. Arau subsidiarioen inguruan, aipatu nahi dugu, behin eta berriz aipatzen dela 2011tik indarrean dagoen araudia mantentzen dela eta ajuste batzuk besterik ez direla egiten. Horien artean, Leokako espazio libreen eremuak 114 m2 ordezkaten dira beste eremuarekin. M2 txiki horiek aldatzea ez da interes orokorreko ezer, baizik eta etxebizitzaren sarbidea beste toki batetik joateko eta enkajatzeko egin beharreko mugimendu bat.

Bizilagunok ere eremuaren mugaketa arau subsidiarioetan dagoen bezala mantentzeko eskatzen dugu. Proiektuak ez duelako hori ere errespetatzen. Eremuaren mugaketan egindako aldaketei esker, promotoreak egin nahi dituen etxebizitzak kokapena koadratzen du bere mesedetan. Eraiki nahi diren etxebizitzak inguruan altuerak eta dimentsioak izugarritzakoak dira eta argi dago ez doala bat Kaxkoko egiturarekin. Kaxkoak beti izan duen xarma mantentzea izan zen egokiena eta etxebizitzak egiten badira, inpaktu gutxiago izango duen proiektu bat planteatu. Gainera, Kaxkoko etxebizitza batean aldaketak egiteko leihoak aldatu, eguzki plakak jarri etab., izugarritxo arauak eta oztupoak daude. Berriz, eremuarekin bat ez doan etxebizitza bloke erraldoiak egiteko arazorik ez.

Aldatu nahi den eremu hau betidanik Kaxkoko birika izan da eta honek guztiz hondatuko du eremua bai natura aldetik, baita itxuraren aldetik ere. Gainera, Leokako eremuarekin bat ez doazen etxebizitzak jarri nahi dira. Orain eremu pribatua dela eta publiko izatea lortuko dela azpimarratzen duzue. Argi utzi behar da orain eremu osoa berdea dela eta ondoren, eremu horren erdia baino gehiago izugarritzko blokez beteko dela. Beraz, zonalde berdea etxebizitza pribatuz ordezkatuko da. Gainera, lortu nahi den eremu berde horretarako ez dago ezer aurreikusirik.

Hainbat kasutan ere aipatzen duzue promotoreak beste modu batera eraikiko balu zenbakiek ez luketela emango, hau da, promotoreak ez lukeela onurarik aterako. Baina horregatik, herriak eta herritarrok ez genuke kalte hori ordaindu beharko. Eta, gainera, urbanizazio berri honek orain dagoen zirkulazio arazoa areagotuko luke. Eta kontziente zaretela aipatu diguzue. Hala ere, ez dago arazo hau konponduko duen planteamendurik.

Zalantzak ditugu bizilagunok egiten ditugun alegazioek zerbaitetarako balio ote duten. Bizilagunekin bilduko zaretela esan diguzue, baina logikarik ez diogu ikusten, plenoan proiektua onartu eta ondoren elkartzeari. Lehenengo elkartu, gaia aztertu eta ondoren plenora ekarri beharko litzateke.

Eta, bukatzeko, argi geratzen zaigu Udalak presa handia daukala igogailua eraikitzen hasteko, baina presa horrek ezin du herriko eremu garrantzitsu bat horrela kaltetu eta gauzak ongi begiratu eta aztertu behar dira. Bestela...

Alkatea: Eskerrik asko, Idurre.

Idea orokorra, nahiz eta puntu zehatzetan ez naizen sartuko, ordena ere ez nukeelako mantenduko. Baina aurrekoan batzordean egon ginen eta aipatu duzun kontuetako bat eta nik garrantzia ematen diodana da: plenora ekartzen da gaia bizilagunekin egon gabe edo sententzio horrekin. Bizilagunekin bilera asko egin dira Hirigintzatik. Eta lehengoan komentatu genizuen kontu formal bat dela. Guk zuei alegazioak erantzun ahal izateko eta erantzunak eman ahal izateko, pleno honetatik pasa behar dugu. Orduan bidali ditzakegu erantzun horiek. Erantzun horietako batzuk kontu tekniko eta juridikoak dira, beste batzuk desestimatu egiten dira, beti ere arauetan oinarrituta. Beti egiten diogula erreferentzia 2011ko arau subsidiarioei. Noski, hor jasota dagoelako. Inpresio bat daukadalako nik, eta zuen alegazioak irakurtzen aritu naizelako. Nolabait irudikatu da, eta uste dut zure diskurtsoa ere aldatu dela eta eskertzen dut. Uste dut hasierako bileretako diskurtsoak beste batzuk izan zirela. Ni ez nintzen egon baina Hirigintza Saila bai, eta uste dut beste termino batzuetan, esango genuke. Eta eskertzen dut gaur termino hauetan hitz egiten aritzea. Desadostasuna agertzea zilegi delako, baina informazio zuzenarekin egin behar dugu. Alegazioak irakurtzen aritu naiz eta sententzia bada presa adierazten duzu. Garapen honek presa dauka Udalarentzat? Garapenak ez. Igogailuak badauka presa Udalarentzat? Bai, noski. Eta Udalarentzat baino gehiago, Portun eta Elizatxon bizi diren pertsonentzat. Urteetako aldarrikapena delako igogailu hau egitea. Eta denboran kointziditu egiten du. Inportantea da, behin eta berriz errepikatuko dut arau subsidiarioena, baina hemen gauza bat eta beste irakurri edo zuei entzun izan dizuegun beste aipamen batzuetan adierazi da garapen hau "que nos lo hemos sacado de la manga". Eta ez da egia. Garapen hau ez dugu guk asmatu eta hemen lehen dokumentua 2010ekoa da. 2011n onartu ziren arau subsidiarioen alegazioak. Eta lau alegazio daude eremu honi dagokionez: hiruk zerikusia dute eraikigarritasun eskubideekin eta aldaketa batzuekin, eta bat badago jada, eremuaren edo garapenaren kontra egiten duena. Alegatu zuen

pertsona horrek bilera batean adierazi zuen asmatzen ari ginela kontua eta hau berria zela. Kuriosoa da. Berak hori esaten du, baina berak sei urte lehenago alegazio bat egin zuen.

Nik ulertzen dut haserrea eta desadostasuna egon daitekeela, baina eskatzen dudana da esaten nizun bezala, eskertzen dut gaurko tonua eta hitz egiteko modua, baina datuetan zuzentasuna ere. Gero ere esan baita programaketa aldaketak egin ditugula. Programaketa berritzea tokatu egiten zen eta da Hirigintza programaketa zortzi urteetarako egiten da, oker ez banago 2016an onartu genuen 2016-2024koa eta hor ordenatzen genituen garapen desberdinak. Eta hau ere hor zegoen. Hau aurreikusita zegoen 2024tik aurrera egiteko moduan. Eta gu hasi ginen orain dela urte dezente, aurreko legegintzaldian, igogailuarena lantzen, proiektu desberdinak, eta hau azkenekoa da. Aurretik zirriborro pila bat egon dira, beste toki batzuetatik egiteko etab. Eta jarduketa programak legez markatzen zuen garaian dator promotore pribatu bat, bere eskubidea delako. Orduan, ezin duguna da transmititu Udalak jokatzeko duela promotore pribatu baten interesetan. Justu kontrakoa delako. Eta alegazioa hemen daukat, zuen alegazio batean, nolabait ere, aipatzen da justifikatzen dugula promotoreak bere interesak edukitzeko igogailua interes publiko bat dela... garapen honen interes publikoa arau subsidiarioek esaten dute 2011n. Eta interes publikoa areagotzen da igogailuarekin. Baina garapen honen interes publikoa jada aipatzen da 2011n. Honekin zer esan nahi dut? Hemen ez dagoela ezer ez korrika eta presaka egin denik, galde diezaiegun bestela Portu eta Elizatxokoei, ea ze presarekin ari garen egiten. Sei-zazpi urte badaramatzagu igogailuaren zirriborro desberdinekin. Sei-zazpi. Hori ni hemen nagoenetik, zuzenean. Uste dut nahiko denbora badela eta Portu eta Elizatxori zor zaiela igogailu bat.

Eta, bestetik, arauak markatzen duten bide guztia jarraitzen ari gara. Ados egon edo ez, eta zilegi da ados ez egotea edo uste dut zuen eskubidea dela eta zuen eginbeharra gaur egiten ari zareten hau egitea. Baina nik gauza bat eskatzen dut, eta hor eskutik joango gara: informazioa zabaltzen dugunean zuzenak izatea. Hori bai eskatzen dut. Batzuetan, aurrekoan esaten zenuten, "agian falta zaigu informazioa". Hemen gaude, egin dira bilerak, eta bilerak eta bilera horietan informazioa eman zaizue. Informazio hori eman denean, gero desinformazioa ere egin da. Hau da, bilera horietan esandakoaren kontrakoak. Eta bilera horietan nik uste dut inor ez dela harro egongo bilera horietan Udal langileei eta Udal zinegotziari esan zaizkionekin. Zeren bilera horietan adierazi da, besteak beste, interes pribatuak genituela guk garapen horretan. Eta hori gauza txikienetako bat esanda. Horregatik, berriz ere aipatzen nuen tonu honetan hitz egin behar dugula.

Alderdi sozialistako bozeramaileak aipatu du, aurrekontuen negoziaketetan bi alderdiek adostu dugu otsailean edo urte hasieran, behintzat, hirigintza proiektuaren inguruko gune bat irekitzea bizilagunekin elkarlanean aritzeko. Hor ere aipatu baita, "zona berdearentzat ez dago planik". Noski, orain tokatzen baita egitea. Ulertzen dut zaila dela barruan ez egonda hirigintzaren tramiteak zein diren jakitea, baina horiek jarraitzen ari gara. Eta hemen badago, berriz esaten dut, ados edo ez ados egon, hori zilegi da. Baina beste gauza batzuk ez. Guri dagokigu hemen interes publikoagatik aritzea eta gu horretan ari gara; interes publikoagatik. Guretzat errazagoa izango litzateke beste erabaki bat hartu eta gaur zuei azalpenik eman beharrik ez izatea. Hori argi eduki, guretzat errazagoa litzateke. Baina guk badaukagu zeregin bat, eta da interes publikoari begira aritzea. Interes publikoa da irisgarritasuna hobetzea eta Kaxkoarentzat parke publiko bat sortzea berdea izango dena, eta hori denon artean diseinatzeko aukera baldin badaukagu, askoz hobe. Horrek ahalbidetuko duelako herritarrek hori disfrutatu ahal izatea, gaur egun, gutxi batzuen esku dagoena.

Aipatzen da, baita ere, mugikortasunaren kontua. Arauetan aldaketa puntual txiki bat egin genuen eta ez zen bizilagunen intereserako, aldaketa puntual hori egin zen Elizatxo eskolako sarbidea arintzeko. Eta eskolako sarbidea askoz ere seguruagoa izateko gaur egun dena baino. Gaur egun dena baino. Horregatik, garapen hau doa zaintza batekin arlo politiko eta arlo teknikoan, pentsatzen dut ez duzuela sinetsiko, baina ni ez nago hemen gezurra esateko eta ez dut ezer irabazten gezurra esanda. Gero norberaren esku gelditzen da sinistu edo ez. Eta aurrekoan batzordean esaten nizuen, "lasai gaude zentzu horretan", zeren jarduten ari garen modua da jardun behar garen modua. Eta zaintzen ari garen mimoa, mimoa gune eta garapen honetan, ikaragarria da bai maila tekniko eta bai maila politikoan. Lehen aipatu da, ez dakit ze ordezkari politikak aipatu duen, moldaketa bat egin dela, altuera gutxitu, beste modu batera jarri, eskola zaindu... hori dena kontutan edukitzen ari gara.

Eta berriz diot, etxebizitza politikari erreferentzia eginez, aipatu delako etxebizitza berriak. Bai, gune tentsionatu batean gaude eta gune tentsionatu horren ekintza planak, besteak beste, esaten du etxebizitzak eraiki behar direla. Eta herri batean mota guztietako etxebizitzak eraiki behar dira. Publikoak eman behar dio etxebizitza publikoa eta babes ofizialekoak. Eta Hernaniko Udalak hori egingo du eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean ari gara hori alokairukoa izan dadin, erosketakoa izan beharrean.

Hortaz, bakoitzaren esku dago gure esku dagoena eta gure arduraren politikatik ari gara egiten, ari gara azaltzen eta horretan jarraituko dugu. Esan bezala, aurrekoan batzordean ere aipatu genizuen: zalantza guztiak argitzeko prest gaude, bildu behar den guztietan biltzeko prest gaude. Baina baldintza batzuk egon behar dute eta da, behintzat, entzungo diren eta bertan parte hartuko duten iritzia kontutan hartzea, errespetatzea eta informazioari ere sinesgarritasun bat ematea. Esaten dugun guztia gezurra dela esaten baldin bada edo pentsatzen baldin bada, alferrik elkartuko gara. Eta berriz errepikatuko dut, gu ez gaude hemen gezurra esateko, gu arduraren publiko batetik lanean aitzeko gaude.

Idurre Alfonso (Kaxko-Elizatxo-Atzieta bizilagun taldearen izenean): Guk daukagun sentazioa da hemen proiektua jada behin guztiz onartzen denean promotoreak ez duela aldatetik egingo. Orduan, Udalak ze puntutara arte esango dio aldatu hau, bizilagunekin bildu garelako, bai edo ez.

Gero, informazioaren inguruan, gertatu dena da bi bilera egin ditugu bizilagunekin eta lehenengo bileran oraindik ez zegoela informaziorik, plana oraindik ez zegoela osotasunean eta ez genuen informaziorik; bakarrik ibilgailuena. Eta promotorearen aldetik, informazio gehiago eduki dugu planoak erakutsi dizkigulako. Udalaren aldetik (...) bat jarri zelako bakarrik. Gero, Udalaren aldetik baita ere, ez informatzea kaltetuak... adibidez, hitzarmena egin zenean, hitzarmenari alegazio bakarria egin zitzaion. Eta esan zen "mesedez, informatu prozesu honen guztiaren inguruan eta informazio guztia eman". Adibidez, aurrekoan junta zegoen eta ez genuen informaziorik eduki juntan gai hori hitz egingo zela edo plenoan. Txosten arkeologikoa eginda zegoela...

Sentsazioa daukagu Udala bere aldetik doala promotorearekin eta ez garelako ezertaz enteratzen ari.

Alkatea: Hitza eskatu duzu, izen-abizenak mesedez, aktan jasotzeko, eta zenen ordezkarietan zatozen.

Victor Goikoetxea (publikotik): Nik auzokide gisa emango dut nire iritzia, besterik gabe. Uste dut ulertu dudala esan duzuna, borondate ona dago... Uste dut, halaber, liskarrak eta konfrontazioak ez daramatela ezertara. Ni, berriz, entzutera nator, ados jartzera...

Alkateak esan duen bezala, azkenean guztion artean adostasunera iritsi gaitzake, ez nirekin, bizilagunekin eta herriarekin, nola egin daitezkeen gauzak. Dena den, nik uste dut egia dela gaurko bilera desberdina dela. Nire aldetik, garapena egingo dela onartua dut, eta bizilagunok hori garatuko dela onartua dugu, herriaren gehiengoz, Udalaren gehiengoz erabaki delako hori egitea.

Orduan, gaia jada ez da hasieran bezala, erabateko ezezkua. Egingo da. Beraz, kontua da nola egiten den. Nik uste dut garapen urbanistiko bat planteatzen dela, eta horrek aukera emango diola herriari berdegune batzuk irabazteko, korridore bat, ez dakit zehazki nola. Jakina, Elizatxo eta Portu auzoetarako irisgarritasuna oso garrantzitsua da. Promotoreak edo hori egiten duenak dirua irabazi behar du edo iritsi behar du iritsi behar denerako. Galdu egiten naiz, ez dakit zer atera behar den. Eta, jakina, etxebizitzaren arazoa arintzen lagunduko du.

Nik esaten dudana gauza bakarria da pentsatu egin behar dela, eta Alkateari hitza hartzen diot, inguruko bizilagunekin hitz egingo baitu, ingurunearekiko errespetuz, eta hori oso garrantzitsua da niretzat behintzat. Egiten dena modu jasangarrian egin dadila, gainera, borondate politiko eta sentsibilitate kontua bada. Gauza bera modu desberdinean egin daitekeela egiaztatuta dago. Gauzak modu askotara egin daitezke, badakizue.

Espero dut parte hartze honetan edo izango dugun honetan proposamenak edo ideiak trukatea, edo ez dakit nola funtzionatuko duen, adostasun batera iristea. Badakigu garapena egingo dela. Baina nola egingo den erabakitzeko guneetan gu ere entzutea nahi dugu. Mundu guztiari entzun diogu, igogailuari, berdeguneari, etxebizitzari... inguruan bizi direnei ere entzuteko eskatzen dugu, non egingo den ikusteko. Izan ere, Leokatik gertu ere egingo da. Nik, proiektua ikusita, zuek ezagutzen duzue, nik ikusten dut nola planteatuta dagoen hori... neuri handi samarra iruditzen zait. Guztiz neurrigabea.

Urbanizatzea erabaki zenean, nik uste dut 2011n Jimenezekin bildu nintzela, udal arkitektoa zena. Proiektua onartu bezain laster erakutsi zidan, nik eskatu nion erakusteko pixka bat nolakoa zen. Altuera mugatu batzuk zeuden, bolumen batzuk eta abar. Nik uste dut denok ados gaudela hemen nahi den gauza bakarria inpaktu txikiko zerbait egitea dela, integratua. Ahal bada! Ez dakit. Berririo diot, Sukiak egin zuen proposamen bat zegoen. Beheko aldean 42 etxebizitza zeuden, eta nire ustez, zoragarria zen. Beno, badirudi orain ez zuela ematen. Orain, Atzietan ere eraikitzea erabaki denez, bai. Berririo diot, borondate kontua da. Gauza bera egin daiteke, baina modu desberdinetan. Eta espero dut batzordean adostasunera iristea edo gauzak egitea denon adostasuna bilatuz, gutxi gorabehera. Hemen inor ez da gailenduko, pentsatzen dut edo espero dut. Denon artean adostuko dugu, ezta? Ez da kontua irabaziko duen ala ez, Udalarekin zaudeten ala ez, edo eraikuntza enpresarekin. Ni ez naiz hor sartzen. Niri ez zaizkit istorio horiek interesatzen. Buelta bat ematea eta zerbait jasagarria egiten jarraitzea besterik ez da. Besterik ez.

Alkatea: Eskerrik asko.

Labur-labur aipatzeko, aurrekoan batzordean eskua luzatu genizuen eta berriz ere bai. Ikusten dut gaur baldintzak ematen direla. Baina gaur arte ez da baldintzarik eman. Orain arte ez da prestutasunik egon proiektuaren inguruan hitz egiteko, oposizioa frontala zelako.

Erabaki da aurrera egitea. Legeak markatzen duen eskubideei bide ematen diegu. Hori errepikatzea inportantea da. Hemen eskubide batzuk arauak markatzen dituztelako. Eta bere garaian zonako propietatea dutenetako batzuek alegazioak jarri zituzten, beste batzuek ez, eta gutxi batzuk jarri ziren. Noski, aipatu dut eta berriz errepikatuko dut, Udalak proiektu edo garapen bat aurrera eramaten duenean, beti egiten du, interes publikoa berriz aipatuko dut oso garrantzitsua iruditzen zaidalako, eta mimo guztiarekin ingurunera egokitzeko. Gogoratzen naiz, eta jada ez da ateratzen kezka hori argitu baitzen, gogoratzen naiz atera zen lehenengo gauza zen ginkgoa bota egingo zela. Kasik hori zabaldu zen. Bai... Eta ardura politikoa duen alderdi batek ere hori zabaldu zuen. Gaur egun argi gelditzen da proiektu hau landu den lehenengo egunetik ginkgoa gehiago babesteko neurriak hartzen direla, besteak beste.

Lehenengoan batzordean aipatu nuen, araudiak uzten du ekipamendu bat eraikitzen. Beste eraikin bat jartzen uzten du. Eta erabaki da espazio berdea hartuko dela ekipamendu bezala, horrela kontsideratuko dela, eta ez dela eraikiko. Proiektu eta garapen hau lantzen ari garen ikuspegia zuek daukazuen ikuspegi bera da, jakinda garapen honek aurrera egin behar duela. Eta hori zalantzan ez jartzea gustatuko litzaidake.

Promotoreak egin behar duenaz, argi eta garbi, nik promotoreak daukan interesa berdin zait. Eta Gobernu Talde honi berdin zaio promotoreak zer interes daukan. Gure interesa da arauak esaten dutena egitea, interes publikoagatik eta herritar guztiak gune irisgarri, publiko eta berde bat edukitzea. Garapen honek hori ahalbidetuko du.

Honekin, beraz, hitzartze guztiak eginda... Azkena eta labur-labur, mesedez. Hartu mikrofonoa aktan jasota gelditu dadin. Izen-abizenak eta zenen ordezkaritzan zatozen.

Alaitz Pineda (publikotik): Trafikoaren inguruan, kale hori ixten da bi aldiz egunean. 64 kotxe gehiago egunean ikastolaren aurrean, 64 plaza gehiago aurreikusten baitira. Bihurgunean, gainera, egunero autobusa pasatzen baldin bada maniobrak egin behar dira. 64 kotxe gehiago hor?

Alkatea: Azterketek diote 64 etxebizitza egoteak ez du esan nahi...

Alaitz Pineda (publikotik): 64 plaza jartzen du.

Alkatea: Barkatu, 64 etxebizitza egoteak ez du esan nahi 64 kotxe batera egongo direnik. Mugikortasun plan bat ere egiten ari gara, herri guztiko mugikortasuna kontutan hartzen ari dena, eta horkoa ere barne.

Hori bakarrik esatea, hori kontutan hartzen dela herri guztiko mugikortasunaren azterketa egiterako garaian.

Honekin, orduan, bozkatzera pasako gara. Esan bezala, gaur bozkatzen duguna da egon diren alegazio desberdinei teknikari eta juridikoek egin dituzten alegazioen erantzunak ontzat ematen ditugu, ontzat emanda zuei jakinaraziko zaizkizue, eta horrekin, behin alegazioei erantzunak emanda, plan bereziari behin-betiko onarpena ematen zaio.

Hau da hirigintza tramite bat, geroago gehiago etorriko direlarik. Gaurkoan hori egingo genuke. Hortaz, HS03 eremuaren plan bereziaren behin-betiko onarpenaren aldeko botoak? EH Bildu, EAJ eta Euskal Sozialistak udal taldeenak. Kontrakoak? Elkarrekin-Podemos udal taldearenak. Beraz, plan bereziaren behin-betiko onarpena ontzat ematen da.

BOZKETAREN EMAITZA

	Kopurua	Izen-abizenak
ALDE	13	<ol style="list-style-type: none"> Xabier Lertxundi Asteasuinzarra. (EHBildu) Patxi Ibarguren Etxeberria. (EHBildu) Ainara Atorrasagasti Urizar. (EHBildu) Aitor Lukas Solano. (EHBildu) Asier Mingo Arruabarrena. (EHBildu) Amaia Miner Canflanca. (EHBildu) Aitor Huizi Izagirre. (EHBildu) Urko Lazkoz Fernandes. (EHBildu) Oier Agirresarobe Lizaso. (EHBildu) Miren Kistiñe Rodríguez Polaina. (EHBildu) Andoni Amonarraiz Gómez. (EAJ-PNV) Blanca Alberro Aranzasti (EAJ-PNV) Miryam Vazquez Vecino. (EAJ-PNV) Mikel Gurutzeaga Zubillaga. (EAJ-PNV) Ismael Ganchegui Gonzalez. (EAJ-PNV) Ricardo Crespo Rubio. (PSE-EE) María Jesús Ruiz Ochoa (PSE-EE)
KONTRA		<ol style="list-style-type: none"> Jaione Aristregui Cao. (Elkarrekin Podemos) Lurdes López Gorrotxategi. (Elkarrekin Podemos)
ABSTENTZIOAK	6	<ol style="list-style-type: none">

OSOKO BILKURAK GEHIENGOZ HARTUTAKO ERABAKIA

1. TXOSTENAREN HELBURUAK.

Txosten honen helburua da, hasierako onarpenaren ondoren, eta jendaurreko epea igarota, aurkeztu den (HE) HS.03.1 eremuaren Plan Bereziaren dokumentuaren analisia, batetik, aplikagarria den hirigintza legera egokitzen den zehazteko, eta bestetik, aurkeztu diren alegazio eta txosten sektorialak informatzeko, eta hala badagokio, behin betiko onarpena emateko.

2. PLAN BEREZIAREN HELBURUA.

Hernaniko Hirigintza Plangintzako Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginak (aurrerantzean, Hernaniko Arau Subsidiarioak), 2011ko apirilaren 11n udalbatzak behin betiko onartu zituenak, (HE) HS.03 eremua mugatzen du, besteak beste, eta haren barruan (HE) HS.03.01 eremua. Bertan, haren egiturazko hirigintza-araubidea zehazten du.

Eremua garatzeko, arau horiek agintzen dute haren antolamendu xehakaturia dagokion Plan Bereziaren bitartez antolatu beharko dela.

Testuinguru horretan egina, Plan Berezi horren xedea da eremuaren antolamendu xehatuaren araubidea ezartzea, dokumentuan azaldutako arrazoiak kontuan hartuta eta bertan adierazitako baldintzetan eta irismenarekin.

Planaren xede den eremua, funtsean, bat dator Hernaniko Arau Subsidiarioetan Jarduketa Integratuko eremu independente gisa (AI-HS.03.1) zehaztutakoarekin, eta hari atxikita geratzen da, titulartasun pribatuko lurzorua eskuratzeari dagokionez, (HE) HS.03 azpierzemuko D.10/HS.03 Espazio Libreen Sistema Orokorra.

3. TRAMITAZIO AURREKARIAK.

- 2024/04/10ean Ingurumen Eraginaren Azterketa eta zarataren azterlana aurkeztu zen.
- 2024ko azaroan Hernaniko Berdintasun Sailak txostena egin zion Plan Bereziari.
- 2024/11/18an Eragin Linguistikoari dagokion Irismen Txostena sinatu zen. Dokumentu horren ondorioa da ez dagoela egin beharrik hizkuntza inaktuaren azterlanik.
- 2025/05/16an Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailburuordetzako ebazpena jaso zen. Bertan, Plan Bereziaren Ingurumen Txosten Estrategikoa formulatu zen.
- 2025/04/15ean Plan Bereziaren dokumentu berria aurkeztu zen hasierako onarpena izapidetzeko.
- 2025/05/29an egindako Tokiko Gobernu-Batzarrean erabaki zen Plan Bereziari hasierako onepena ematea.
- 2025/06/25ean GAOn argitaratu zen aipatutako onarpena, eta horrenbestez, dokumentua jendaurrean jarri zen 20 eguneko epean.
- 2025/09/16an GAOn argitaratu zen Plan Bereziaren hasierako onarpenean zegoen lizentziak eteteari buruzko baldintza zehaztapena.

3. JASOTAKO ADMINISTRAZIO SEKTORIALEN TXOSTENAK.

Jendaurreko epean, hauek dira jaso diren txosten sektorialak, eta bertan eskatutako baldintzen betetze-maila:

ADMINISTRAZIOA	DATA	BALDINTZA LOTESLEAK	PLAN BEREZIA
1. Ingurumen Txosten Estrategikoa (Eusko Jaurlaritza)	2025/05/16	Badaude	Bete dira

2. URA Agentzia eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa	2025/05/22	Badaude	Bete dira
3. Foru Aldundiko Kultura Departamentua	2025/07/11	Badaude	Bete dira
4. Hegazkin Zibileko Zuzendaritza Nagusia	2025/07/28	Ez daude	Aldekoa
5. Foru Aldundiko Kultura Departamentua	2025/07/30	Badaude	Bete dira
6. ADIF eta Trenbide Sektorearen zuzendaritza nagusia	2025/08/08 2025/09/16	Badaude	Bete dira
7. Telekomunikazioetako idazkaritza nagusia	2025/09/11	Badaude	Betetzeko daude
8. Añarbe Urak	2025/10/02	Badaude	Bete dira

2025eko irailaren 11n Udalak jaso du Telekomunikazioen, Azpiegitura Digitalen eta Segurtasun Digitalaren Idazkaritza Nagusiaren txostena, Ministerioak bidalitakoa. Txosten hori derrigorrezkoa eta loteslea da. Bertan, Plan Bereziari zuzenketa hauek eskatzen zaizkio:

- Plan Bereziari, telekomunikazio operadore zehatzak aipatzen dira, eta, 11/2022 Legearen arabera, hirigintza antolamenduko tresnetan ezin da jaso horrelako erreferentziarik. Beraz, horien orde, txostenean eskatzen da arategi teknikoak aipatzea, edo beste modu batean identifikatzea.
- Plan Berezia telefonia mugikorra aipatzen den lekuan, telekomunikazioak aipatu behar da.

Aldaketa horiek dokumentuaren behin betiko onarpenean egon behar badira ere, entitate oso txikiko aldaketa dira. Horrenbestez, ez zaio arazorik ikusten, orain, behin betiko onarpena emateko, eta, dokumentua GAOn argitaratu aurretik, zuzenketa horiek dagokion Testu Bateratuan aurkezteko.

4. AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK.

Jendaurreko epean, hauek dira aurkeztu diren alegazioak:

1. Vidal Prieto Velaz (2025/06/19).
2. Idurre Alfonso Etxabe (2025/07/22).
3. Amaya del Valle Sanz (2025/07/23).

Alegazio hauei erantzuna Hirigintza eta Ingurumen Saileko arlo juridikotik idatzi da. Nolanahi ere, alegazio baten onarpenetik eratorritako aldaketa, eremuaren iparraldeko muga doitzea, alegia, egoki jaso da Plan Bereziaren dokumentu honetan.

5. AURKEZTUTAKO DOKUMENTUAREN EDUKIA.

Orain aurkeztu den dokumentuak, oinarrian, hasierako onarpenerako aurkeztutakoaren bera da eduki formalaren aldetik. Oraingo dokumentuan, hauek dira datozen aldaketak:

- Lursailen azalerak zehaztu eta doitu dira.
- 01 lursailaren azalera doitu da alegazioaren onarpenaren ondorioz.
- Ekipamendu pribatua jasotzeko proposamena lekuz aldatu da. Aurretik, 03. lursailaren eraikineko beheko oinean zegoen; orain, ordea, 02. lursaileko eraikinaren beheko solairuan dago.

Horrez gain, Plan Bereziak, dokumentu berri hauek ditu:

- Txosten sektorialak.
- Txosten sektorialetan eskatutako aldaketa edo baldintzak, ordenantzetako testu arautzailean txertatu direnak.
- Trenaren zortasunen plano berria.
- Azterketa historiko-arkeologikoa. Azterketa horrek jaso dituen ondorioak baldintza moduan sartu dira Plan Bereziaren ordenantzetako testu arautzailean.
- Ura Agentzia eta konfederazioak eskatutako "Drainatze Sistema Jasangarrien" inguruko azterketa, eta horiek eremuan ezartzeko aukerak eta baldintzak.

Gainerako hirigintza parametro eta antolaketa irizpide guztiak mantendu egin dira Plan Bereziaren dokumentu berrian.

6. PLAN BEREZIAREN HASIERAKO ONARPENEAN EZARRITAKO BALDINTZAK BETETZEA.

Hasierako onarpenerako erabakia, honako baldintza hauekin eman zen:

I.- Behin betiko onarpenerako dokumentuak, arestian 2. atalean zehazturiko akatsak zuzenduko ditu. Aipatu akatsak honako hauek ziren:

- a) *«Plan Berezia aurkeztu duen talde eragilearekin izandako azken bileran adostu moduan, B lursaileko eraikinaren eragina eta inpaktua gutxitzeko, eraikin horren inplantazio kota metro bat eta erdi (solairu erdi bat) jaitsiko da. Hau da, eraikinaren sarrera eta beheko solairua, + 28,50eko kotan egotetik, + 27,00ko kotan egongo da, eta atarien sarrera (erdi sotoa), + 23,50eko kotan. Era berean, eraikinaren gailurrak ez du gaindituko + 42,50eko kota.*
- b) *Memoriaren VII. ataleko 14. orrian adierazten da "eremuaren jabeek" 50.000 euroko ekarpena egingo diotela Udalari, urbanizazio orokorraren gastuetan laguntzeko. Hori zuzendu beharko da, konpromiso hori Plan Berezia aurkeztu duenak hartu baitu, ez eremuko jabe guztiek.*
- c) *Ordenantza arauemaileetan, 5. artikuluan, e.00 ekipamenduzko partzela jaso da. Ordenazio xehakatuan ez dago ekipamendurako lursailik; beraz, erabilera xehakatuko eremuaren sistematizazioan e.00-ren inguruko erreferentzia hori kendu beharko da».*

Behin betiko onarpenerako dokumentuan adierazitako akats horiek zuzendu dira.

«II.- Behin betiko onarpenerako dokumentuak INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN ZUZENDARIAREN ebazpenean (2025eko maiatzaren 16koa) ezartzen diren baldintzak txertatuko ditu. Zehazki planaren araudian artikulua bat gehituko da aipatu ebazpenaren neurriak beteko direla xedatuko duena eta ebazpenaren kopia atxikiko da dokumentuan».

Baldintza hau bete da, behin betiko onarpenerako dokumentuan, planaren araudian, 26. artikulua gehitu da ebazpen horren neurriak beteko direla adierazten.

«III.-Behin betiko onarpenerako dokumentuak Uraren Euskal Agentziak 2015eko apirilaren 13an egindako txostenean eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak 2025eko apirilaren 15ean egindako txostenean adierazten diren baldintzak txertatuko ditu. Zehazki planaren araudian artikulua bat gehituko da aipatu txostenetan jasotzen diren neurriak beteko direla xedatuko duena eta txosten horien kopia atxikiko da dokumentuan».

Baldintza hau bete da, behin betiko onarpenerako dokumentuan, planaren araudian, 27. artikulua gehitu da txosten horietan ezartzen diren neurriak beteko direla adierazten.

«IV.- Behin betiko onarpenerako dokumentuak honako hau ere jaso beharko du:

-Añarbeko Urak emandako adostasun txostena sartu beharko du, dauden sistemek premia berriei zerbitzua emateko duten gaitasuna justifikatuko duena».

Baldintza hau bete da, behin betiko onarpenerako dokumentuan. Memorian, XIII. eranskin gisa erantsi da Añarbeko Urak sozietateak 2025eko urriaren 1ean egindako txostena, premia berriei zerbitzua emateko dauden sistemen gaitasunaren nahikotasunari buruzkoa. Ondorioak planaren araudian, 28. artikuluan sartu dira.

«- Drainatze jasangarriko hiri-sistemen ebaluazio tekniko eta ekonomikoa egin beharko da, hiri-garapenak karga kutsatzaileari dagokionez duen inpaktua jatorrian minimizatzeko, bai eta gehieneko emariak arintzeko ere, Indarrean dagoen Plan Hidrologikoaren 48.1 artikulua eta JPHeren 126 ter, artikulua agintzen dutena jarraikiz».

Baldintza hau bete da, behin betiko onarpenerako dokumentuan. Memorian, XIV. eranskin gisa, drainatze jasangarriko hiri-sistemen ebaluazio tekniko eta ekonomikoaren txostena erantsi da, hiri-garapenak karga kutsatzaileari dagokionez duen inpaktua jatorrian minimizatzeko, bai eta gehieneko emariak arintzeko ere, indarrean dagoen Plan Hidrologikoaren 48.1 artikulua eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 126 ter artikulua ezartzen duten bezala.

«V.-Plan berezia behin betiko onartu aurretik, eremu osoaren azterketa historiko-arkeologikoa egingo du planaren sustatzaileak. Ondorioen arabera, esku-hartze bat egitea komeni den erabaki ahal izango da. Arkeologia-lanak hasi aurretik, edo dagoeneko obra-fasean daudenean, bai eta horien modalitatea eta hedadura ere».

Baldintza hau bete da, behin betiko onarpenerako dokumentuan. Memoria, XV. eranskin gisa erantsi da Aranzadi Zientzia Elkartek 2025eko urriaren 27an egindako eremu osoaren azterketa historiko-arkeologikoa. Ondorioak planaren araudian, 29. artikuluan sartu dira.

7. ESKUMENA ETA IZAPIDEAK

Behin betiko onarpenerako emateko organo eskuduna Osoko Bilkura da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.1 c) artikulua jarraikiz, eta gehiengo sinplearen quoruma behar du. Lege horren beraren 70.1 artikuluan xedatzen denez, «Ordenantzak, hirigintzako planetako arauen artikulua-zatiak barne, baita hirigintzako planetako erabakiak ere horien behin betiko onarpenera toki-erakundearen eskumenekoa denean, probintziako "Aldizkari Ofizialean" argitaratuko dira» eta ez dira indarrean sartuko testu osoa argitaratu eta Lege horren beraren 65.2 artikuluan zehazturiko epea igaro arte.

Plan Berezia onartzeko jarraituko den prozedura 2/2006 Lurzoru eta Hirigintza Legearen 95 eta 96 artikuluetan eta Lurralde antolamenduko planak eta hirigintza antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen 46/2020 Dekretuaren 31 artikuluan zehazturikoa da. Prozedura honako hau da:

- Aurkeztu den dokumentuaren behin betiko onarpena.
- Argitaratu baino lehen dokumentua foru erregistrora bidaltzea.
- Behin betiko onarpenaren testu osoa eta plan partzialaren arau urbanistikoak GAO argitaratu behar dira, indarrean sartzeko.
- Behin betiko onarpenaren testu osoa Gipuzkoan hedatze handiena duten egunkarietan argitaratuko da eta interesdunei jakinaraziko zaie, kasu honetan dokumentuaren sustatzaileei eta alegazioak aurkeztu dituztenei.

Kontuan hartuta lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 legearen 95 eta 96. artikulua, baita 46/2020 Dekretuaren 31 artikulua ere, hona:

Kontuan hartu da Tokiko garapen batzordeak 2025eko abenduaren 11an gehiengoz emandako irizpena

Horiek horrela Hernaniko Osoko bilkurak gehiengoz erabaki du

LEHENENA.- Aurkeztutako alegazioak Hirigintza eta Ingurumen Saileko arlo juridikotik idatzitako txostenetan proposatzen den terminoetan erantzutea.

BIGARRENA.- Behin betiko onarpena ematea (HE) HS.03 eremuko Plan Bereziari honako baldintza honekin:

- Plan Bereziari, telekomunikazio operadore zehatzak aipatzen dira, eta, 11/2022 Legearen arabera, hirigintza antolamenduko tresnetan ezin da jaso horrelako erreferentziarik. Beraz, horien ordez, arautegi teknikoak aipatu behar dira edo beste modu batean identifikatu.
- Plan Berezia telefonia mugikorra aipatzen den lekuan, telekomunikazioak aipatu behar da.

Plan Bereziaren araudia GAO on argitaratu aurretik, zuzenketa horiek jasotzen duten dokumentua aurkeztu behar da.

HIRUGARRENA.- Plan Berezia onartzean, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 89.3 artikulua xedatzen duena kontuan izanik, plan berezi honen kopia bat Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, Hirigintza Planamenduko Erregistroan gordetzeko.

LAUGARRENA.- Plan Berezia onartzean, behin betiko onarpenaren erabaki hau eta planaren araudia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Behin betiko onarpena Gipuzkoan hedatze handiena duten egunkarietan argitaratzea.

BOSGARRENA.- Ebazpen hau Sektoreko jabeei, planaren sustatzaileei eta beste interesdunei jakinaraztea. Erabaki honen jakinarazpenarekin batera **alegazioen txostena atxikiko** da interesdun bakoitzarentzat.

SEIGARRENA.- Plan berezia Hernaniko Udaleko Web orrialdean argitaratzea.

3. HERNANIKO UDALEKO ZARATA-MAPA EGUNERATZEA

Alkatea.- Osoko bilkurarekin jarraituko dugu. Hirugarren puntura pasako gara eta, kasu honetan, Hernaniko Udaleko zarata mapa eguneratzea da eta hau ere Ainarak azalduko digu.

Ainara Atorrasagasti: Dakizuen moduan, zarata ez da molestutzen duen gauza bat, kutsadura mota bat da baita ere, eta egunero pairatzen duenak, bere osasunean eta bizi kalitatean eragina du. Horregatik, oso garrantzitsua da ahal den heinean oso ondo jakitea zeintzuk diren zarata iturriak, nondik datozen eta ze eragin duten, eta lehenengo gauza da horrekin mapa bat egitea eta behin dakigunean zeintzuk diren gune garrantzitsuenak, horrekin ekintza plan bat egitea. Zarata mapak ematen dizkigu honetarako tresnak. Behin zarata mapa eguneratu dugunean ikusi da hiru direla zarata iturri nagusienak: trafikoa, trafikoarekin batez ere autopista, AP-8a, A-15a eta buruz ez dakit, barkatu, baina errepide orokor bat; bigarren fokua trenbide-sarea da, gaur egun daukagun trenbidea eta etorri daitekeen AHTa ere bai; eta hirugarren foku nagusia poligonoak eta industria-guneak.

Zarata mapak, berez, legez eskatzen digu hiru soinu-iturri hauek neurtzea, baina gu harago joan gara. Izan ere, herrian badauzkagu beste kezka batzuk ere. Txotx garaiko kaleko neurketak egin ditugu, batez ere, arratsalde eta gaueko ordutegietan, eta baita askotan jaso ditugun kexak barredora eta haize-tresnen inguruan.

Ez daukagu zertan horrelakorik sartu zarata mapan, baina guretzat garrantzitsua zen hau ere jasotzea eta jakitea benetan ze ondorio dituzten.

Guzti hau jasota, gure lana da hemendik aurrera ekintza plan bat egitea. Ekintza plan honekin aurreikusten dugu etorriko direla eskaera batzuk, nahiz eta gauza batzuk ez egon gure baitan; adibidez, errepideetan pantailak jartzea edo trafikoaren kudeaketak. Baina tira, guri dagokigu hemendik aurrera, hau onartzen den momentutik aurrera, honen inguruan lanean hastea eta, batez ere, zarata pairatzen duen jende horrentzat erantzunak emateko.

Alkatea: Eskerrik asko, Ainara.

Erronda irekiko dugu, ez dakit zerbait baduzuen esateko.

Jaione Aristregi: Bai, gure taldea ados dago zarataren mapa eguneratzearekin. Gure talde politikoaren eskakizunetako bat da, aspalditik. 2016an zarataren mapa bat egin zen eta uste dugu tiradera batean sartu zela. Honekin gauza bera ez gertatzea espero dugu.

Trafikoaren zarata zuzentzeko neurrien artean, Ainarak zioen bezala, hesi akustikoak jartzea proposatzen da. Espero dezagun hori Aldundiarekin batera egitea. Barredorak eta haize-makina elektrikoak edo belaualdi berrikoak erabiltzea ere proposatzen du. Zenbat urte daramagu hori bera eskatzen eta ordutegia egokitzeko eskatzen, zarata hainbeste ez nabaritzeko. Neurri horiek hartzea oso erraza da, eta, nire ustez, ekintza-planean egin ahal izango ditugu. Azkenik, gaueko aisialdiaren zarata dugu. Horretarako, hainbat ekintza proposatzen dira, hala nola ordutegia arautzea, udaltzain gehiago egotea edo zarata ekiditeko lona batzuk jartzea. Neurri horiek egokiak iruditzen zaizkigu auzotarrei sortutako kalteak arintzeko eta, gutxienez, ez molestatzeko.

Neurri horiek denoi ezagunak zaizkigula uste dut, beti aritu baikara horiei buruz hitz egiten. Neurri horiek dagoeneko deskribatuta daude gure bizikidetzari buruzko ordenantzari. Arauak jartzeaz gain, ordenantzak ere bete behar ditugu.

Gure botoa aldekoa izango da.

Ricardo Crespo: Bai, milesker.

Labur-labur, eta batzordean esan nuen bezala, gure alderditik eskatu nahiko genuke hau eguneraketa denez, gaur arte izan dugun zarata maparen balorazio bat. Jakiteko non egin dugun porrot edo non asmatu dugun.

Alkatea: Ados.

EAJ udal taldeak ezer ez? Ainara, zuk?

Ainara Atorrasagasti: Atzetik hasiko naiz. Bai, balorazioaren inguruan egia da batez ere zerbaitetan ez badugu ondo egin berriro horretan ez erortzeko eta hobeto egiteko beharrezkoa dugula.

Eta zuk aipatu duzuna, Jaione, proposamenak dira berez mapa eguneratu dutenenak. Baina ekintza plana egiten den horretan, proposamen bakoitza ondo landu behar den gauza bat da eta ekintza bakoitza oso egingarria da, datak zehaztu behar dira eta guretzat oso garrantzitsua da hori horrela zehaztea ekintza eta fitxa bakoitza nola egin zehazteko. Hala, jarraipena egingo baita eta berriz ere eror ez gaitezen akats berdinetan, Ricardok esan moduan, esaten diren gauzei jarraipena egin ahal izateko eta benetan egiten direla ikusteko.

Alkatea: Ados, bozkatzera pasako gara. Hernaniko Udaleko zarata mapa eguneratzearen aldeko botoak? Aho-batez onartuta gelditzen da, beraz.

OSOKO BILKURAK AHO BATEZ HARTUTAKO ERABAKIA

Hots kutsadurari buruzko 213/2012 Dekretua¹k, xedatzen du 10.000 biztanletik gorako udal guztiek egin behar dituztela zarata-mapak udalerrian eragina duten zarata-fokuen ebaluazio orokorra egiteko eta, mapa horiek, gutxienez 5 urtetik behin berritu behar direla.

Lege horri jarraiki Hernaniko Udalak 2016 urtean onartu zuen indarrean dagoen zarata-mapa eta, handik hona igaro den denbora tartean planeamendaren gauzatzeak egin dira; esaterako, Karabel auzoa eta Santa Barbara auzoko etxe berriak (Laubidieta ikastolaren aurrean eginikoak). Handik ona denbora asko igaro da gainera eta, bada garaia, gure udalerriko zarata-mapa eguneratzeko.

213/2012 Legearen 13. artikulua zehazten du zarata-mapa berriak hilabetez jendaurrean egon behar duela eta, horren berri Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak eta Gipuzkoako Aldizkari ofizialean eman behar dela, pertsona fisiko edo juridiko orok dagoen dokumentazioa eta erabilitako prozedurak aztertzei aukera izan dezan. Iragarpen horrek zehaztu behar du agiriak non erakutsiko diren eta alegazioak egiteko epea zein den.

Iragarkiaren testu proposamena:

IRAGARKIA, Hernaniko Zarata-Mapa berriaren jendaurrean jartzeari buruzkoa.

Jendaurreko informazioa: Hernaniko Zarata-Mapa.

Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak ezarritakoarekin bat etorruta, jendaurrean jarriko da Hernaniko Zarata-Mapa, hilabete epean, iragarki hau argitara ematen denetik zenbatzen hasita. Epe horretan, herritarrek dokumentua aztertzei eta egoki iruditzen zaizkien oharra edo alegazioak egiteko aukera izango dute. Dokumentua Hernaniko Hirigintza eta Ingurumen Sailean ikusi ahal izango da, baita webgunean ere: www.hernani.eus

Kontuan hartu da Tokiko garapen batzordeak 2025eko abenduaren 11an gehiengoz emandako irizpena

Horiek horrela **Osoko bilkurak aho baetz erabaki du:**

- 1.- Hernaniko Zarata-mapa eguneratuari behin behineko onarpena ematea.
- 2.- Zarata-mapa, udaleko web orrian, hilabetez, jendaurrean jartzea eta, horren berri bai Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean baita Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere ematea.
4. HERNANIKO KLIMA ETA ENERGIA PLAN INTEGRATUAREN (HKEPI) ONARPENA

Alkatea.-Laugarren puntura pasako gara. Hernaniko energia eta klima plan integratuaren onarpena. Hau ere Ainarak azalduko digu.

Ainara Atorrasagasti: Berriro kaixo.

¹ 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa

Tira, gaur aurkezten dugun Hernaniko klima eta energia plan integratu hau da berez azken urteotan Hernaniko Udalak egin dituen lanketa askoren plan integratu bat. Udalak urte askotan ibilbide sendo bat dauka jasangarritasuna eta energiaren arloan. Ko-energia jasangarrien planak, klima arriskuatarako plana, mugikortasun diagnostikoa, Zero Zabor plana... Honek guztiak egiten duena da plan hauek integratu eta honekin ekintza plan oso zehatz bat proposatu. Berez, badator legeak ezartzen dizkigun betebeharrak batzuk betetzera eta horrekin pixka bat zuek ikusteko, gaur emisioen erronkak zehazten ditugu.

Zuek ikusteko nondik datozen emisioak, batez ere garrantzitsuenak (%43), industria beste emisio sektore garrantzitsua bat da (%51 energia kontsumoan), horrek pisu handia du gure plan estrategikoan, ikusiko zenuten moduan. Baina plan honetan ere, identifikatu ditugu, emisioa eta kontsumoa aparte, pobrezia energetikoa eta klima arriskuak. Guretzat oso garrantzitsua zen hauek zehaztea eta honekin ere ekintza planak egitea.

Helburu nagusi batzuk markatu ditugu. 2030era begira helburu nagusi horietan badago Udalaren kontsumoa %35 murriztea. Udal eraikinetan energia berriztagarria %32an gutxienez erabiltzea. Dakizuen moduan, EneHerKomekin daukagun hitzarmenean hori lortzera bideratuko gara. Udalerriko emisioak %45-55 artean murrizteko konpromisoa hartzen dugu. Berez, %45 markatzen du legeak, baina Udalak lehendik egin dituen etxeko lanei esker, %55 hori lortzeko aukera ikusten dugu. Eta hau dena lortzeko ekintza plan oso zabal bat egin dugu. Ekintza bakoitzak fitxa oso zehatz bat dauka, data batzuekin, kronograma oso zehatz bat dago jarraipena egiteko...

Eta hemen egin duguna, baita ere, genero ikuspegi bat eta ikuspegi soziala integratzea. Guretzat oso inportantea da, egia da, batez ere energia gaiekin eta klima aldaketaren gaiarekin gehien pairatzen duena beti delako generotik edo egoera sozialetik lehentasunez pairatzen dutenak. Orduan, guretzat oso inportantea zen begirada hori hemen sartzea baita ere.

Guk ekartzen dugun plan honekin batera, dakarkigu proposamen bat: Alkateen Itunera atxikitzea. Alkateen Itunak egiten duena da Europako klima politiken helburu horretara heltzea, helburu zorrotzagoak dira energia eta klima planak eskatzen duena baino, baina lehen aipatu dudana moduan, hor gaude. Momentu onean gaude, lehendik egindako etxeko lanei esker, %45eko murrizketa horretara heltzeko gai gara eta pentsatzen dugu Alkatearen Itunera atxikitzeko aukera onean gaudela. Gainera, Alkateen Itunera atxikitzeak dakarkigu, baita ere, sare batera batzea, Europako sare batera, eta diru-laguntzentzako erraztasunak edukitzea, irismenak edukitzea eta, gainera, beste proiektu batzuk ezagutzeko aukerak edukitzea eta partekatzea. Orduan, Alkateen Itunak konpromiso batzuk eskatzen dizkigu, emisio hauek murriztea bat. Baina baita herritarrek eta eragileak inplikatzeko ere. Gure kasuan, horrekin beti egon gara ados eta horregatik hemen ere hau berresten dugu.

Ekintza plan hau, lehen aipatu dugun moduan, beraiek egingo digute jarraipen zehatz eta zorrotz bat eta guri ere ondo etorriko zaigu. Eta beste udalerririk eta erakundeekin lankidetzara egingo dugu. Guk oso interesgarri ikusten dugu, orduan, eskatzen duguna edo hemen puntu honetan planteatzen duguna da, alde batetik, energia eta klima plana onartzea, bai pentsatu dugu ez dela beharrezkoa baina jendaurrean egotea hilabetez, jendeak gura badu bere ikuspuntuak edo ekarpenak edo alegazioak egiteko. Eta azken puntua bada Udala Alkateen Itunera atxikitzea. Horretarako, eskumenak eman Alkateari, sinatzeko eta atxikitzeko.

Alkatea: Eskerrik asko, Ainara.

Erronda irekiko dugu.

Jaione Aristregi: Labur-labur, klimaren planak oso egoera kezagarria aurkezten digu. Hala ere, Hernani klima-aldaketara egokitzeko urratsak ematen ari dela onartzen du plan honek. Planak markatzen dizkigun helburuek gogor lan egitera behartuko gaituzte. Bai Udalari zuzenean dagokionari, bai herritarrengan dibulgazioa eta pedagogia egiteko zereginari dagokionez.

Gure botoa beti izango da aldekoa.

Alkatea: Ez dakit beste udal taldeek zerbait aipatzekorik baduzuen... Zuzenean bozkatzera pasako gara, orduan. Ainarak esan duen bezala, plana bera onartzen dugu eta plan horren

barruan sartuta dagoena da Alkateen Itunera atxikitzea. Hernaniko klima eta energia plan integratuaren aldeko botoak? Aho-batez onartzen da.

HERNANIKO OSOKO BILKURAK AHO BATEZ HARTUTAKO

ERABAKIA

1/2024 LEGEA, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketarenak, 18. artikuluan honako hau zehazten du:

«5.000 biztanle baino gehiago dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek, beren eskumenen esparruan, klima- eta energia-planak onartu beharko dituztela dio. Plan horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean xedatutakoa jaso beharko dute, eta klimaren aldagaia txertatu beharko dute, klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko ikuspegitik, lege honen xede eta edukiarekin lerrokatuta».

Lege horren helburuak dira hauek:

a) Nazioarteko konpromisoak betetzen laguntzea berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteari eta klima-aldaketaren efektuetara egokitzeko neurriak ezartzeari dagokienez.

b) Trantsizio energetikoaren prozesua honako hauek ardatz hartuta garatzea:

Energia-aurrezpena eta energia-efizientzia, energia berriztagarrien aprobetxamendua eta egungo eredia deskarbonizatzeko aukera ematen duten energien erabilera, betiere horniduraren segurtasuna eta lehiakortasuna bermatuta.

c) Deskarbonizazio-prozesua bultzatzea, EAEko sektore sozioekonomiko guztietan trantsizio energetikoa erabiliz, garapen ekonomikoa, enpleguaren kalitatea eta gizartearen ongizatea indartuz, garapen-eredu jasangarri eta inklusibo baten esparruan.

HKEPI planaren onarpenarekin 2030 urterako honako helburu hauek betetzeko konpromisoa hartuko du Hernaniko Udalak:

2030rako HELBURUA	LEGEA
Udalaren energia kontsumoa % 35 murriztea.	4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa.
Tokiko administrazioan kontsumo elektriko eta termikoaren % 32ko sorkuntza berriztagarria lortzea.	4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa.
Udalerriko berotegi-efektuko gasen emisioak % 45 - 55 murriztea.	1/2024 Legea, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketarena eta Energiaren Aldeko Alkateen Ituna.

1/2024 Legeko 10. artikulua Euskal administrazio publikoek, beren eskumenen arloan, herritarren parte-hartze aktiboa sustatuko dutela zehazten du. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeek Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean edo haren ordezkio arauan zehaztutako tresna eta bideen bitartez sustatu ahal izango dute parte-hartze publiko hori. Horiek horrela, Hernaniko Klima eta Energia Plan Integratua hilabetez jendaurrean egotea proposatzen dugu. Horren berri Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ematea, pertsona fisiko eta juridiko orok dagoen dokumentazioa aztertzei aukera izan dezan. Iragarpen horrek zehaztu behar du agiriak non erakutsiko diren eta alegazioak egiteko epea zein den.

ESKUE0058cce-f7e5-423b-a8b3-8d86e8b6fa88

IRAGARKIA, Hernaniko Klima eta Energia Plan Integratua.

Jendaurreko informazioa: Hernaniko Klima eta Energia Plan Integratua.

Alkateen itunera atxikitzea.

Hernaniko Udala atxiki dakioke Klimaren eta Energiaren aldeko Alkateen Itunari. Horrekin hartuko lukeen konpromisoa Berotegi Efektuko Gasen Emisioak % 55 murriztea da; hau da, 1/2024 Legeak zehaztutakoa baino 10 puntu gehiago. Gainera, atxikimenduari esker, Hernaniko Udala Europako sare aktibo baten parte izango da, eta bere trantsizio klimatikoa bizkortzeko tresnak, prestakuntza eta finantzaketa-aukerak aurkituko ditu.

Eman beharreko pausoak honako hauek dira:

1. Klimaren eta Energiaren aldeko Alkateen Itunaren ekimena udaleko osoko bilkuran aurkeztea.
2. Udalbatzak ebazpen ofiziala eman ondoren, alkateak (edo kontseiluaren ordezkari baliokideak) konpromiso-dokumentua sinatzea.
3. Sinatu ondoren, plataforman eskatutako informazioa bete eta konpromiso-dokumentua kargatu behar da, behar bezala sinatuta.

Kontuan hartu da Tokiko garapen batzordeak 2025eko abenduaren 11an gehiengoz emandako irizpena

Horiek horrela Hernaniko Osoko bilkurak aho batez erabaki du:

- 1.- Hernaniko Energia eta Klima Plan Integralaren hasierako onarpena ematea.
- 2.- Hernaniko Energia eta Klima Plana udaleko web orrian, hilabetez, jendaurrean jartzea eta, horren berri Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ematea.
- 3.- Hernaniko Udala alkateen itunera atxikitzea eta alkateari hura sinatzeko ahalmena ematea.

5. UDALEKO ORDAINSARIEN IGOERA

Alkatea. -*Eta azken puntura pasako gara, bosgarren puntura. Udal barrura begirako puntu bat da eta izango litzateke Udaleko langileen ordainsarien igoera. Honek eragingo lieke Hernaniko Udaleko langile guztiei eta baita Ereñotzuko toki entitate txikiko langileari ere. Espainiako Gobernuak ahalbidetu edo baimendu duen kontu bat da, badakizue, zoritxarrez, hau ere Espainiak markatzen digula eta ez daukagula nahiko burujabetza guk erabakitzeke gure langileei soldatak nola igo, baina kasu honetan, abenduaren 2ko lege dekretuak baimentzen duena da 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera %2'5eko igoera aplikatzea. Honekin ere esaten duena da %1'5eko igoera aplikatzea 2026tik aurrera. Eta 2026an KPIa 1'5 edo 1'5 baino altuagoa baldin bada, %0'5eko igoera hori ere ahalbidetzea. Orduan, horiek denak onartzea da proposatzen duguna.*

Ez dakit honen inguruan badagoen zerbait esateko. Bestela zuzenean bozkatzera pasako gara. Hernaniko Udaleko langileen ordainsarien igoeraren aldeko botoak? Aho-batez onartuta gelditzen da.

Hasieran esan dugun bezala, gaur abenduan ohikoa den bezala, ez-ohiko deialdia egin dugu osoko bilkura honetarako. Honek esan nahi du urteko azken osoko bilkura dela, jende askorentzat data seinalatuak dira hauek eta gutxienez, esan urtea ondo bukatu dezagula, berria hobeto hasi eta indar askorekin bueltatu gaitezela, aurrean dauzkagun erronka guztiei erantzuteko.

HERNANIKO OSOKO BILKURAK AHO BATEZ HARTUTAKO ERABAKIA

Kontuan hartu da Antolaketa batzordeak 2025eko abenduaren 11an aho batez emandako irizpena Horiek horrela Hernaniko Osoko bilkurak aho batez erabaki du

Lehena.- 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera, % 2,5ko ordainsari-igoera gehigarria baimentzea, Hernaniko Udalaren eta Ereñotzuko Toki Entitate txikiko zerbitzura diharduten funtzionarioentzat eta lan-kontratuko langileentzat

Bigarrena.- Toki-korporazioetako kideen eta behin-behineko langileen soldata mailak ehuneko berean igotzea.

Hirugarrena.- 2025eko abenduaren 2ko 14/2025 Errege Lege Dekretua, abenduaren 2koa, sektore publikoaren eremuan ordainsarien arloko presako neurriak onartzen dituenaren 2. artikuluan zehaztutako % 1,5eko gehieneko igoera onartzea, 2025eko abenduaren 31n indarrean zegoen soldataren gainean. Igoera hori 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.

Laugarrena.- Aipatu Lege Errege Dekretuaren 2. artikuluan ezarritako bigarren igoera gehigarriaren baldintzak betetzen badira; hots, 2026ko KPIa % 1,5 edo handiago bada, % 0,5eko beste igoera finkagarri bat gehitzea, eta onartzea igoera hori 2027ko lehen hiruhilekoa ordaintzea Hernaniko Udalaren eta Ereñotzuko Toki Entitate txikiko zerbitzura diharduten funtzionarioentzat eta lan-kontratuko langileentzat, baita Toki-korporazioetako kideen eta behin-behineko langileen soldata mailak ehuneko berean igotzea.

Bosgarrena.- Akordioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Alkatea.- Urte berri on, denei.

Hernanin 2025eko abenduaren 16an

Idatziz gera dadin eta ondorioak izan ditzan egin dut ziurtagiri hau, alkatearen aginduz eta bere oniritziarekin

O.E

HERNANIKO ALKATEA

Ziurtagiri hau elektronikoki sinatuta dago: osotasuna eta egiazkotasuna, QR kodearen bidez edo azpiko egoitza elektronikokoaren bidez egiazta dezakezu.

